


B

BARREN

Ilusioak ez dauka adinik

TOKIKOM



residencial
GÉMINIS

230.000 €tik aurrera
garajea eta trastelekua barne



- Etxebizitza BERRIAK
- 2 eta 3 logela
- Horma-armairuak

- Guztiz hornitutako sukaldea
- BISITATU EREDU-ETXEBIZITZA



Santa Klara kalea, 32 C - Behe solairua B

Tel. 943 74 44 67

ELGOIBAR

Gabonak kantuan

Azken hilabeteetan gure artean sortu den bertso booma alde batera utzita, euskaldunon artean beti izan dugun kanturako zaletasuna ere aipatzea gustatuko litzaidake.

Nork ez du koadrilan edozein bazkari edo afariren ondoren abestu? Horrelakoetan denok ekartzan ditugu gogora ohiko euskal kantak, eta hor hasten gara kantuan. Gabonetan ere baditugu horren erakusgarri diren hainbat egun, Mendaron, Olentzeroren kalejira esaterako. Baina egun berezi horietako ekintza tradizionalak alde batera utzita, gure koadrilan ohitura bihurtzen ari den beste bat go-raipatu nahiko nuke: gau-pasako afaria eta afalosteko kantaldia.

Aurreko urtean horrelako arrakasta izan zuenez, joan berri zai-gun urtean ere hantxe batu ginen 30 bat lagun. Zita abenduaren 28an genuen aurrez jarria. Niri norbaitek Inuzente Eguna zela eta, ziria sartu nahi izan zidan afaria bertan behera geratu zela esanaz. Baina zorionez ez zen halakorik gertatu.

Euskaldun jatorren moduan lehenengo tripa ongi bete eta gero, denok kanturako prest. Beti izan dugu kanturako zaletasuna eta behoko su ondoan jarri eta hantxe jardun ginen bi musikari bikainek lagunduta kantu kantari, eztarria urratzeko beldurrik gabe.

Gainera, gonbidatu berezi bat ere izan genuen gure artean, txapeldunen artean txapeldunena den Andoni. Eta ez zen lanera etorri, baizik eta denok bezala euskal kantuak kantatzera eta ongi pasatzera, nahiz eta hainbat bertso eta koplak kantatu zizkigun. Gauak luze jo zuen, (nahiz eta guri motza iruditu) denetarako astia izan ge-

nuen, euskal kantuak kantatu, musika entzun, bertsoak abestu, hainbat euskal dantza dantzatu...

Geurea dugun euskal kultura aberats honetako hainbat alor jorratu genituen. Badaukagu non eta nola gozatu!

Horrelako momentuetan ohartzen naiz ze gutxi behar dugun ondo pasatu eta gozatzeko. Ia hurrengo urtean ere denok han bazten garen!



Edurne Olazabal

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitze gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

.....
“Kanturako zaletasuna beti izan dugunez, sutondoan jardun ginen, eztarria urratzeko beldurrik gabe”

GABONETAKO IRUDIAK MEDIATEKAN JARRI DITUGU



www.elgoiBARREN.net

**Egin
 klik
 eta
 ikusiko
 duzu**

 ELGOIBARKO IZARRA
 KULTUR ELKARTEA



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Elkartasunak ez du etenik

Data esanguratsu hauetan, ehunka euskal etxetan aulki hutsak izan ditugu beste urte batez. 746 aulki huts izan ditugu, eta beste hainbat iheslarietarako dagozkienak. Espetxe politika kriminalak ez du etenik Gabonetan, bere krudelkeriaren dimentsio osoari eusten baitio.

Igor Gonzalez Sola preso bilbotarrak bere buruaz beste egiten saiatu nahi izatea da errealitate gordin horren azken eredu. Espetxe politikak ezartzen dituen muturreko egoerak, bizi baldintza tamalgarrak eta asistentzia ezak desesperazio-eraman du Igor. Espetxe politikak euskal preso politikoak pertsona eta subjektu gisara suntsitu nahi ditu.

Euren inguru sozial eta afektibotik erabat aldendu nahi dituzte. Azken asteetan, katxeo eta umiliazio saiakeren bidez, komunikazioaren soka erabat moztu nahi izan dute. Gure senide eta lagun presoak erabat bakartu eta isolatu nahi dituzte. Antza, ez dute nahikoa sakabanaketarekin, Bizi Osorako Zigorarekin, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoak ez askatzearekin, bakartzearekin, mehatxuekin, irainekin, komunikazioen bortxaketa etengabekoarekin, traslado erabat arbitrario edo etengabeko intoxikazio mediatikoenekin. Orain, gu, senideak paretaren kontra jarri nahi gaituzte, gure ume txikiak goitik behera ukitu nahi dituzte eta elbarriak diren pertsonak ere biluzarazi nahi dituzte.

Tamalez, hau da euskal preso politikoek zein euren senide eta lagunok bizi dugun errealitate gordin eta krudela. Ikusta-

razi behar dugun errealitatea. Salatu behar dugun errealitatea. Argazkien kontrako ehizan, Euskal Preso Politikoen Kolektiboren irudia eta presentzia duina kaletatik ezabatu nahi izan zuten. Baina, elkartasunak ez du inolako etenik izan. Biderkatu egin da.

2010ean elkartasunaren, salaketaren eta interpelazioaren bideari eutsi behar diogu. Euskal preso politikoen auziak Euskal Herriko jendartearen bihotza ukitzen du bete-betean. Azken hilabeteetan abiatu dugun elkartasun uholde horren ereduak nabaritu behar ditugu. Eguneroko lanaren bitartez, salaketak ez du etenik izango. Konpromiso zehatzak eta euren kumpilimendua eskatuko dugu. Eskubide urraketak bakoitza publikoki arbuatuko dugu, baita kalean ere. Gabonetan hainbat ekintza egin dira egoera hau salatzeko, adibidez gisa, Euskal Herriko hainbat herritan burutu diren gose grebak. Elgoibarren ere, hamar neska-mutil izan dira gose greban, eta egunero kalean hainbat ekintza egiten presoen egoera salatzeko. Jarraian, larunbatean Bilbon izan zen manifestazio jendetsuan, argi geratu zen elkartasunak ez duela etenik izango, eta aurrera begira ere lanean jarraituko dugula. Beraz, animatu nahi zaitugu hemendik aurrera egingo diren ekintzetan parte hartzera, guztiok batera lortuko baitugu euskal presoak euskal herriratzea, dagozkien eskubideen jabe.

Euskal presoak etxera!!!

Etxerat

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarki lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Oier Narbaiza, Aina Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Oier Narbaiza PUBLIZITATEA Leire Rubio, Eneritz Lazkano MAKETATZALEA Zalao Amaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZALEAK Oihana Tarragual, Anjel Bazterretxea, Ane Odria, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldegui, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Aina Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza. IMPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.760 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Maialen
Olazabal

Kaixo,
Ane!

Bukatu da bada 2009a, eta dagoeneko 2010. urteko lehen egunez gozatzen ari gara. Ez dakit Olentzero zer moduz

portatuko zen, baina ziur nago urtero legez ia etxe denetera iritsiko zela. Urte bukaeran, beti bezala, Elgoibarko bertso saioan izan nintzen, eta harrিতa geratu nintzen bertan bildu zen jende mordoarekin. Bertsolaritza benetako sua dela dirudi eta gu bere inguruan dantzan gabiltzala (Ametsek zioen bezala). Baina su hori piztu bakarrik ez, mantentzen ere jakin behar da. Nik uste beste gauza askoren artean 2009. urte bukaera honek bertso inguruko aho zapore gozoa utzi digula askori, eta ezin utzi bada aipatu gabe.



Ane
Odria

Aupa, Maialen!

Ez naiz ni urte berriari helburu asko jartzekoa. Normalean helburu handiegiak jartzen dira horrelakoetan, eta badakizu helburuak urrutiegi jartzeak zer arrisku duen, ezta? Betetzen zailagoak izaten dira epe motzera eta gure eskura jartzen ditugun horiek baino. Ez dut esan nahi helburu errazak jarri behar zaizkionik bizitzari, ondo esan duzun bezala. Helburu horiek amets eta ilusio ere badira, eta helburuak errazegi betetzeak ilusio falta ekar dezake. Horregatik, egunerokotasunean presente izan ditzakegun helburuak jartzearen aldekoa naiz ni; lortzeko modukoak, baina era berean, ahalgintxo bat behintzat eskatzen dutenak. Orduan bai poza aspaldi amestutako hori lortutakoan!

“Zer eskatuko zenioke 2010. urteari?”

Urte zaharrari begira jartzean, istorio onak eta txarrak izaten dira. Niri onak gogoratu eta bizi izan ditudan haiekin berriz irudi edo hitzez bada ere bizitzea gustatzen zait. Istorio txarrak, ordea, ahaztu ez, baina berriz gerta ez daitezen ondorioak atera eta haizeak eramatea izaten da onena.

Baina zaharra atzean utzi eta berriari ekin behar diogu. Ez dakit hamabi mahatsak jan ote zenituen, baina ziur nago urte berrirako amets, ilusio eta helburu asko dituzula. Amets txiki asko izan litezke, handiren bat ere tarteko... Zer eskatuko zenioke 2010. urteari, Ane?

“Oso garbi daukat: geldi egonda, jai daukagu!”

Hala ere, Maialen, eta ez nuke ezkorregia izaterik nahi, baina iruditzen zait aspaldian helburu txikiegitara ohitzen hasi garela herri honetan. Euskal Herri euskaldun bat helburu dugunok (horrenbeste eskatzea ote?) *Egunakia* libre laga dezaten aldarikatzen jarraitzen dugu oraindik. Urtarrilaren 12ari begira egongo gara euskaltzale asko Madrilen berriro ere injustizia gailenduko den beldurrarekin. Ez digute ez batere erraz jarriko oraingoan ere; helburu txikiak jarri arren, baina bestearen atzetik txikitzen dituzte gure ilusioak. Gauzak dauden bezala, beraz, burugogor izan behar oraingoan ere. Gureari eusten diogun artean, ez dute horren erraz lortuko nahi duten hori. Helburu txikietatik iristen da handiagoetara, eta nik behintzat, oso garbi daukat: geldi egonda, jai daukagu!



Elgoibarko Udala



ELUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO





Santa Klara auzoko zebra-bide batek espaloia behar du: “Santa Klaran, Geminis-ko etxe berrietako zebra-bideari espaloiak falta zaizkio alboetan. Ingurune horretan autoak oso azkar ibiltzen dira gainera, eta zonalde arrisku-tsua da. Horrez gain, etxe berrietan egin dituzten eskailerak ilun geratu dira, eta farolaren bat jartzea ondo egongo litza-teke”.



Izotz-pista Plaza Txikian jartzeak aparkaleku asko kentzen ditu: “Zergatik jartzen dute izotz pista Plaza Txikian? Badakit umeez jolasteko guneak behar dituztela, baina erdigunean aparkatzeko sekulako arazoak daude. Ostegunetako azoka ez dute erdigunera ekartzen, baina izotz-pista hortxe erdian jartzen dute. Leku hobea da Sigma luzaroan egongo diren gauzentzat; eta astean goiz bat hartzen duen merkadilloarentzat, berriz, erdigunea da leku aproposa.”.



Antolatzaileek esker-rrak eman nahi dizkiete Ikastolaren txosnan lan egin zuten guztiei: “Eskerrik asko guztioi! Barruan, kanpoan, aurreko egunetan eta ondorengoetan lan egin zenutenei. Urtero bezala, Gabon Zahar Feria egunean herriko Eusko Labeleko harakinen laguntzaz (Armueta, Benito eta Ziarda), Ikastolako txosna antolatzeara posible izan da. Animo eta segi horrela!”.



Zuen kekek, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943 744 112

ESKERTZA

VALENTIN ROMERA RAMOS



2009ko abenduaren 24an hil zen.
 Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
 hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



GABONAK

Irudi batek mila hitzek baino gehiago balio duelako

Hotzak eta aldi berean beroak izan dira Gabonak. Elurra, haizea eta euria egin arren, elgoibartarrek ilusioz eta pozez beterik pasatu dituzte jaiak. Adin eta gustu guztietarako ekintzak izan dira han eta hemen, eta herritarrek ez dira etxean geratu. Ondorengo orriotan duzue Gaboneren errepasoa egiteko aukera. Argazkiak: BARREN eta Jairo Berbel. **Argazki gehiago eta bideoak ikusteko: www.elgoiBARREN.net**



Ume mordo batek hartu zuen parte Atxutxiamaiak antolatutako Olentzeroren kalejiran. Mari Domingik eta Olentzerok eskutitz mordoia jaso zituzten.



Meltxorrek, Gasparrek eta Baltasarrek umeen eskutitzak jaso zituzten.



Ziarda, Mañukorta eta Meabe bertsolariek girotu zuten Gabon Zahar Fera.



Fruitu eta barazkien postu ugari izan ziren azokan. Txillarre baserriko Pello Rubiok bigarren saria jaso zuen barazkien alorrean, eta Mari-gorta baserriak jaso zuen mendiak garbi zain-tzearren ematen duten saria.



Pajeen laguntza izan zuten Errege Magoek Elgoibarko etxeetan opariak banatzeko.



Udal Musika Bandak kalejira rezia izango da taldearentzat.



200 lagun inguruk hartu zuten parte San Silvestre lasterketan.



Izotz hockey txapelketan m...



Ezker Abertzaleak ere egin zuen Olentzeroren kalejira hilaren 24an.



Mausitxa baserriko Rosa Mari Salegik gazta nola egiten duten erakutsi zuen Gabon Zahar Feria egunean. Mausitxakoen sekretua deskubritzeko asmoz, jende asko batu zen udaletxeko arkupeetan.



Ilusioz beterik gerturatu ziren umeak Olentzerorengana, opariak eskatzeko asmoz.



egin zuten abenduaren 24an. Urte berriaren hasieratik 2010a, 125 urte egingo ditu-eta.



Mikel Elkororibek eta Oier Gurrutxagak irabazi dute Gabonetako Padel Txapelketa. Xabi Alonso eta Joseba Igartua izan dira bigarrenak.



Arrakastatsua izan da aurten ere Urgazik antolatutako San Silvestre lasterketa.



maila ona erakutsi zuten herriko gaztetxoek.



Euskal presoek eskubideak aldarrikatzeko gose greba egin zuten hamar elgoibartarrek. Hiru eguneko baraualdian zehar hitzaldiak eta bideo emanaldiak izan zituzten, besteak beste. Abenduaren 31n manifestazioa egin zuten.



Txankakuako perratokia berreskuratu du aurten jaiotza mekanikoak, beste hainbat berrikuntzen artean.



Olentzero eta Mari Domingiri dantza egin zieten Plaza Handian.



Korrika egiteko ez dago adinik.



Gazta postuak ikusten eta gazta probatzen jende asko ibili zen.



Nekane Aranburu Pilar ikastetxeko zuzendariak jarri zuen martxan jaiotza mekanikoa. Aurten 30 urte egin ditu Elgoibarko Jaiotzak.




Ume askok prestatu zuten Olentzerorentzako eskutitza.



Miren Amuriza, Uxue Alberdi, Joxe Agirre eta Maialen Lujanbio izan ziren Elgoibar-ko Izarrak antolatutako bertso saioan, Andoni Egañarekin batera. Arrakasta handia izan zuen ekitaldiak. Sarrerak di-da batean saldu eta Herriko Antzokia txiki geratu zenez, kiroldegian egin zuten saioa.



Umeen,



Parrokiako Abesbatzak kantuz jantzi zituen kaleak abenduaren 24an.



Txerriak eta beste hainbat animalia ikusteko aukera izan zen ferian.



Elgoibarko presoek ere hartu zuten parte San Silvestre lasterketan.



Remiok bigarren aldiz irabazi du urteko gazta onenaren saria.



Atutxiamaikako hezitzaileek giro bikaina jarri zuten Olentzeroren kalejiran.



jaixoen eta ezinduen ilusioak bete zituzten Errege Magoek.



KIROL FEDERATUEN SARIAK BANATU DITUZTE

Kirol Federatuaren sariak banatu zituzten abenduaren 22an, urteko kirolaririk onenak saritze-ko. Hona hemen sari banaketako argazkiak (Saridunak garaikurra eskuan dutenak dira).



Rafa Alvarez, eskubaloia.



Alzolako Urak, tenisa.



Nora Santiago, atletismoa.




Jonhatan Galindo, ehiza.



Alberto Manzanos, saskibaloia.



Nerea Juaristi, igeriketa.



Jose Mari Badillo (Modelos Cimde), arku tiraketa.



Aitzol Arriola, mendizaletasuna.



Adolfo Alkorta, txirrindularitza.



Markel Kerexeta, xakea.



Loren Galeano, futbola.



Agustin Irusta, boloak.



eta Iratxe Aranburu atletiek hartu zuten parte mahainguruan, Mintxeta taldekoekin batera.



Manuel Rey, areto futbola.

Gazteen lokalen inguruan sortzen diren elkarbizitza arazoak konpontzeko proiektua jarri du martxan Udalak

Gazteak, gurasoak, lokalen jabeak eta bizilagunak elkartu nahi ditu hiru bileratan

Lokalen erabilera normalizatzen laguntzeko, eta, bide batez, gazteek erabiltzen dituzten lokalen inguruko elkarbizitza hobetzeko, Elgoibarko Udalak jardunaldi bereziak antolatu ditu. Lokalak erabiltzen dituzten gazteak, haien gurasoak, bizilagunak eta lokal jabeak elkartu, eta denen artean elkarbizitza hobe baterako oinarriak zehaztu nahi ditu. Biharko jarri dute lehenengo hitzordua, Lanbide Heziketako Institutuan (Mekanikan), 10:30ean. Partaidetza tailer horiek Aztiker enpresak prestatu eta dinamizatuko ditu, eta Udalak bertan jasotako ekarpenak jaso eta haien arabera politikak sustatzeko konpromisoa hartu du.

“Hainbat egoera zuzentzeko neurriak jarri nahiko genituzke, debekurik edo obligaziorik ezarri gabe, guztion artean lan



Gazte batzuk lokala margotzen

eginez”, azpimarratu du Alfredo Etxeberria alkateak. Horretarako, baina, herritarren partaidetza ezinbestekoa dela nabarmendu du, eta dei egin die bileretan parte hartzera. Biharkoaz gain, otsailean eta martxoan beste bina batzar ere egingo direla iragarri zuen martitzenean eman zuen

prentsurreko batean. Otsaileko bileraren ostean lehenengo zirriborro bat prestatuko dute, eta martxokoan aurkeztuko dute eman beharreko pausoak zehaztuko dituen oinarritzko akordio hori. Ekimen honen berri emateko, Udalak 7.000 gutun inguru bidali ditu etxeetara.

Ganadua ostu dute Arriaga auzoko larreetan, eta Elgoibarko Udaltzaingoak ustezko lapurreta saio bat saihestu du Santa Klaran



Lapurretak asko ugaritu dira azkenaldian Elgoibarko eta Mendaroko lokal eta saltokietan. Azken hilabeteotan, gainera, ganadua ere ostu dute. Arriaga auzoko Lizundia Txabola baserrikoek, esate baterako, bi lapurreta jasan dituzte bi hilabeteo tartean. Guztira, lau ardi ostu dizkiete, Karkizano pareko aldapan, N-634 errepide ondo-ondotan, duten larretik. Artalde handia dute, eta Etxe-Tar eta Kondia enpresen pareko larre horretara eramaten dituzte ardi batzuk. Itxura batean, lapurretarako leku txarra izan behar luke larre horrek, bista-bistan dagoelako, baina hori ez da lapurrentzako traba izan oraingo honetan. Ballibar baserriko Jose Antonio Arronari ere hainbat ahuntz ostu dizkiete Etxe-Tar eta Kondia enpresen atzealdeko larretik. Bi ahuntz eta lau antxume ostu dizkiete guztira.

Lapurreta saiakera bat Santa Klaran

Elgoibarko Udaltzaingoak ustezko lapurreta bat saihestu zuen joan zen zapatuan Santa Klaran. 6:00ak aldera, udaltzain bik sei lagun ikusi zituzten Mendi-Bide taberna atarian, eta “itxura txarra hartuta”, identifikarazi egin zituzten. Ustezko lapurrek Mendi-Bide tabernako leihoetako bateko aluminiozko lamina kendua zuten, ustez barrura sartzeko. Lekuko enaberrak, udaltzainek eta ertzainek hainbat poltsa konfiskatu zituzten, tabako paketeak eta hainbat jaki tartean. Mendi-Bideko Deme Viñarasek salatu du gutxienez hamabost aldiz ostu dutela eurenean, eta “nazkatuta” dagoela adierazi du. Errege bezperan, berriz, Jai-Alai tabernan sartu ziren, hamabost egunean bigarren aldiz.

Gabonetako zozketak



Miskiren zozketa: lehenengo saria 3735. Eroskik emandako otarra jaso du Unai Murgertzak. Bigarren saria 2911. Sabin Osorok eta Garbiñe Uriguenek jaso dute Londres Hotelean egonaldia.



CD Elgoibarrek zozketatutako otarren irabazleak azaldu dira: Ander Leon eta Nekane Martinez izan dira irabazleak. Zenbaki saridunak honako hauek izan dira: 8404 eta 13299.

Gabon Zahar Ferian itsaski-otarra zozketatu zuen Elgoibarko ezker abertzaleak. 9502 izan da zenbaki sariduna, eta irabazlea Jesus Zangitu izan da.



Jubilatuaren Egoitzako loteria

Jubilatuaren Egoitzako Gabonetako loterari bueltako saria egokitu zaio (63144). Urtarrilaren 7an hasi dira dirua ordaintzen. Interesatuak martxora arteko epea dute kobratzeko. Jubilatuaren Egoitzan bertan jaso daiteke dirua, 10:00etatik aurrera.

‘Egunkaria’-ren aldeko zozketa, Mendaron

Aitor Etxeberria margolariaren koadroa zozketatu dute *Egunkaria*-ren aldeko diru bilketan, eta zenbaki sariduna 262 izan da (ordezkoa, 201). Saridunak urtarrilaren 30era arteko epea du saria jasotzeko.

‘Gure denda, gure poza’

Gure denda, gure poza kanpainaren zozketan 12817 izan da sariduna, (ordezkoa, 19968). Irabazleak ehun euroko erosketa txeketa jasoko du. Urtarrilaren 25era arteko epea dago saria jasotzeko (943 541 050).

Atxutxiamaikaren zozketa

Atxutxiamaika taldekoek Olenzteroren kalejira amaitzean egin zuten zozketa. Hauek dira zenbakiak:

1. saria: 1936 (ordezkoa, 1624)
 2. saria: 1308 (ordezkoa, 3000)
- Saridunek 943 741 626 (Ainara)

telefonora deitu dezakete.



Erretratu zaharra



1956

Aste honetako erretratu zaharra Maria Dolores Etxeberriak ekarri du. 1956. urtekoa da, eta San Bartolome jaietako Txiki Egunean aterata dago, Kultur Etxe aurrean. Gazte koadrila horri umorerik ez zitzaien falta. Egunerako dotore jantzi, txistua hartu eta jai-giro ezinhobean atera zuten erretratua. Gogora ditzagun elgoibartar horiek:

Goian, ezkerretik eskumara: Jose Odriozola, Maria Dolores Etxeberria, Margari Rodriguez (bilbotarra), Pilar Arrieta, Fernando Azpiazu.

Erdian: Edurne Arruti (zarautztarra).

Behean: Karmele Gorostiza, ezezaguna, Gloria Quintana (madrildarra).

Gure berbak Hiztegia: adverbio batzuk (4)

Hona Elgoibarren erabiltzen diren adverbio gehixago.

- ◆ **GOGOR:** Asko, erruz. *Erre gogor eitxen dozu, e!*
- ◆ **GOIBEL:** Lainotuta (zerua).
- ◆ **GOIXAN-BEHIAN:** Erruz. **Eurixa goixan-behian ari dau:** Euri asko ari izan. *Nora zuaz, eurixa goixan-behian ari dau ta!* Ikus **Bota ahala** sarre-ra.
- ◆ **GOIZO:** Goiz. *Ez zaben ametitzen hara jun, da dantza eitterikan, eta San Mielera, ta San Miel urruti, ta goizo etorri bihar, gaiñera, ez gaurko moduan!* **Goiz** ere bai, jakiña.
- ◆ **GORRIRIK:** Biluzik. *Baiña da! Etorri dia playara, Getarixan, ra!* Kendu dana, *gorririk, e!* **Narrugoririk** ere bai.
- ◆ **HAINBESTIAN!** interj. Onartzeko moduan, gaizki ez. Elkarriketetan, galdera bati erantzuna emateko. *–Ze moduz zabizte, ba? –Bueno, hainbestian!* **Hainbestian ibili:** gaizki ez ibili, onartzeko moduan ibili. Antzera erabiltzen da **Nolabaiten ibili**.
- ◆ **HALAKO BATEN:** Halako batean. *Eta halako baten etxera bialdu giñuzen noizpaiten.*
- ◆ **HANKA BAKARRIAN:** Txingoka.
- ◆ **HANKAUTSIK:** Ortozik. *Bedarretan hankautsik ibiltzia gustatze (j)ata. / Nik aitxa Bizkaikua naban, eta amama ere bai. Eta “ortozik” harek; “hankautsik” guk. Oñutsik ere erabiltzen da.*
- ◆ **HARRAZKERO:** Harrezkero. *–Eta zu ezkondata zauden? –Ez. Harrazkero ezkondata / Behintzat aprobau ein tzien. Da harrazkero, ba, karo, harekiñ.*

- ◆ **HARRIKA:** Haur-jolasa, harri bat ea nork urrutien jaurti.
- ◆ **HERAÑE(G)UN:** Herenegun. *Gero, San Lorentzora ere jute gaittuk batzuetan. Herañegun San Migelera, eta hurrengo San Pedro aldera igual da, holaxe. / Herañuan ere bai. Eta miñaldixak! Herañuan gau guztian ixa lorik enaban eiñ.*
- ◆ **HILLIAN-HILLIAN:** Hilero.
- ◆ **HOBE BIHARREZ:** Ondo nahiz. Ikus **On biharrez** ere bai. *Hobe biharrez esandakua da (berba) hori, gizajua. Penia emate'iulako. / Hobe biharrez esan dixat hori, e! Ez'ik gaizki hartu!*
- ◆ **HONozKERO:** Honezkero. Suposizioetan erabiltzeko adverbioa, gerroaldiko adizkiekin, ondo ez dakigun zerbaiten gainean jarduteko. *Fameliak eztauke, ta honozkeo eztebe eukiko. / Honozkeo hilko zan igual haura ere. Honezkero ere bai. Honezkero allegauko zan, ba, abioia, Londresera!*
- ◆ **HUR, hurra:** Gertu. **Hurrian, hurreko...** *Guk ibilli douna, bertako euskaria, hurrekua. / Bueno, urruti ibilli giñan, baiña gero hurrekua jausi zan. / Eta guri Debara tokau jakun. –Bueno, behintzat. –Bai, bai hurrian, hurrin.*
- ◆ **HURRENGO:** Hurrengo aldiz. *Hurrengo natorrenian hitz eingo dou.*
- ◆ **I(G)JUAL:** Beharbada. Bokalarteko kontsonantea galduta ahoskatzen da askotan: **iuai. Akaso** eta **Biharbada** ere erabiltzen dira. *Eta Manolo, hangotxia, eztaikit orduan ein tzban nobixia ero ez, igual orduantxe eindakua zan nobixia.*

Jesus Mari Makazaga

Behin batean... Gabonak

2009 IDAZLEHIAKETA

SARI BEREZIA

**Luzaroan begira
Txorien erresumari,
Dantzan haizeari,
Zuhaitzen babesari,
Hegaka zein kantari,
Zure begi distiratsuei,
Urretxindor borrokalaria!**

**Enara, txepetx,
Birigarro, txantxangorri,
Negarrez abestu diogu
Aurten udazkenari
Zati bat kendu diogu
Zure urrezko bihotzari
Eta pozik erantsi
Gure gogoari
Ta irribarrez jarraituko
Gure bideari.**

**Eskerrik asko
Irakaslerik onenari
Beti eskaini diguzun
Begiradari
Segi kantuan
Itxaropenari
Goizean, gauean,
Egiozu argi,
Laster arte, lagun
Urretxindor polit hori!**

Olerki hau Ainhitze Beristainek egin du, Ane Perez bizilagun eta betiko adiskide izan zuenaren omenez.



Behin batean... Gabonak lehiaketak aurten ere eman ditu fruituak. Urteak dira antolatzen dela, eta parte-hartzeak altua izaten jarraitzen badu ere, ikastetxe-ek sustatutako parte-hartzea dela igarri dugu. Beharbada, horregatik izan da baxua aurten aurkeztutako lanen maila; epaimahaiak, behintzat, hala adierazi du. Olentzero eta Mari Domingiren eskutitzetan, komunikabideen eta publizitatearen eragin kontsumista nabarmena sumatu da, eta literaturari eta irudimenari tarte txikia eskaini diete. Idazlanetan, berriz, urteetan zehar lehiaketan parte hartzen duten gaztetxoek maila eta irudimena nabarmendu du epaimahaiak, aurtengo irabazleak aurreko edizioetan ere sarituak izan dira eta. Bistan da behin sari bat irabazten duenak motibazio berezia izaten duela mundu honetan segitzeko. Bejondeiela sariren bat irabazi dutenei, eta eskerrik asko parte hartu duten guztieii!

ATXUTXIAMAIIKA



PARTE-HARTZE DATUAK:

Olentzero eta Mari Domingi marrazkia: **120**
Olentzero eta Mari Domingi eskutitza: **142**
Idazlana: LASTER ARTE, LAGUN!: **68**

EPAIMAHAI KIDEAK:

Jon Eugi eta Iñigo Otaño

ANTOLATZAIELA:



BABESLEAK:





MAIALEN ARMENDIA
7 URTE, LHI



1. Saria: Maialen Armendia (*Printzesa*)
2. Saria: Maddi Zabala Elizburu (*Eliz*)

OLENTZERO ETA MARI DOMINGIRI MARRAZKIA

► Gogoko al duzu marraztea, eta espero al zenuen saria?

Bai, asko gustatzen zait. Askotan margotzen dut etxean, eta gero politenak gorde egiten ditut. Gainera, marrazki hau egiteagatik margotzeko gauzak oparitu dizkirate eta asko gustatu zaizkit.

► Aspaldiko urteetan ez da akuarelaz egindako marrazkirik aurkeztu, eta horrek harritu du epaimahaia. Zergatik aukeratu duzu akuarelaz egitea?

Amatxok esan zidalako. Akuarelarekin ibiltzea asko

gustatzen zait. Pintzela, ura...Margoekin margotzea baino entretenigarriagoa da, baina beti ez didate uzten.

► Olentzero eliza atarian marraztu duzu. Nola erabaki zenuen marrazki hori egitea?

Ez dakit. Amatxorekin hitz egin nuen eta biok erabaki genuen hori marraztea. Bukatutakoan, oso polita zela esan zidaten etxean guztiek, eta niri ere asko gustatu zitzaidan.

► Zer ekarri dizu Olentzerok? Zuk eskatutakoa izan al da?

Nik Errege Magoei eskatzen dizkiet opariak. Olentzero eta Mari Domingi ikustera irteten gara kalera, asko gustatzen zaizkidalako, baina Olentzerok nahi duena ekartzen du. Erregeei bi gauza eskatuko dizkiet: Nancy bat eta beste zerbait, baina oraindik ez diet gutuna idatzi.

► Non eta nola igaro dituzu Gabonak?

Elgoibarren egon naiz, etxeko guztiekin. Jai daukagunez, asko ibili naiz kalean, ea oso gustura.

OLENTZERO ETA MARI DOMINGIRI GUTUNA

Kaixo, Olentzero eta Mari Domingiri maiteak:

Ni San Lorentzo bailarako Haritz Zaharra naiz. Udan txori asko etorzen dira nire adarretan bizitzera. Beraiek kabiak egiten dituzte, eta umeak jaiotzen zaizkie. Oso abesti politak abesten dituzte, eta beste herrialde batzuetako albisteak kontatzen dizkirate.

Ez nuke nahi hau inoiz aldatzea.

Neguan hostoak jausten zaizkit eta txoriak joan egiten dira lurralde epeletara. Oso gogorra iruditzen zait, beste zuhaitz batzuei ez zaizkielako hostoak jausten. Eta ni, triste, bakarrik gelditzen naiz.

Horregatik eskatzen dizuet mesez neguan hostoak edukitzea, txoriak ez joateko, nirekin nahiko epeltasun eta aterpe edukiko dutelako.

Ondo izan eta besarkada bana bioi.

Haritz zaharra.

1. Saria: Nora Astigarraga Bergua
(Haritz Zaharra)

2. Saria. Eman gabe gelditu da. Aurkeztu diren 142 lanetatik eskutitz bakarra nabarmendu delako. Gainerakoak maila berekoak izan dira asko, eta aurreko urteetan halakoak saritu ez direnez, epaimahaikideek beste inor ez saritzea erabaki dute.



NORA ASTIGARRAGA 8 URTE, LH3

► Haritz batek Olentzerori idatzitako gutuna da zurea. Nola bururatu zitzaizun gai hori?

Etxean haritz txiki bat daukagu, eta harekin gogoratu nintzen. Haritzei hostoak jausten zaizkie neguan, eta pentsatu nuen istorio polita izan zitekeela.

► Hostoak eskatu dizkio haritzak, eta zuk? Zuk zer eskatu zenion Olentzerori?

Panpinak eskatu nizkion, Littlest Pet Shop-enak, eta eskatutako guztia ekarri dit aurten. Bestalde, Olentzero Elgoibarrera etorri zen egunean saria ere jaso nuen: estutxe bat, koaderno bat eta margotzen eta idazten jarraitzeko materiala.

► Aurten, zure mailan ez da bigarren saririk egon. Espero zenuen irabaztea?

Ez dakit espero nuen, baina nahi, bai.

► Iaz zure ahizpak sari bat eskuratu zuen idazlanen arloan. Gustuko al duzue idaztea? Nondik datorkizu zaletasun hori?

Bai, gustatzen zait idaztea. Badaukagu Gabonetan gutunak eta postalak idazteko ohitura. Iruñeko, Madrilgo eta Elgoibar bertako lagunei idazten dizkiegu. Batzuetan marrazkiak ere bidaltzen dizkiet, gogoaren arabera.

► Aurten saria irabazi izana pizgarri al da datorren urtean ere aurkezteko?

Ez dakit. Aurten irabazi dut, eta gustura nago. Datorren urtean ikusiko dut zer egin. Gogoia baldin badaukat, aurkeztuko naiz.



IRATI INTXAUSTI 10 URTE, LHS

► **Iaz sari berezia irabazi zenuen Olentzerori idatzitako gutunen arloan. Aurten espero zenuen irabaztea?**

Egia esan, ez. Iaz ere sorpresa hartu nuen, eta aurten ere bai. Asko gustatzen zait idaztea, eta besterik gabe idatzi nuen.

► **Nola bururatu zitzaizun istorio hori?**

Ez nintzen pentsatzen jarri. Burura etorri zitzaidana idatzi nuen. Liburu batzuk irakurrita neuzkan, eta haietan oinarrituta eta buruan neukanarekin idatzi nuen.

► **Opariak aukeratzen jarri zituen sorginak zure ipuineko protagonistak. Zu Olentzero bazina zer ekarriko zenioke Elgoibarri?**

Buff, egia esan, ez dakit. Beharbada beste parke bat jarriko nuke, jende gehien dabilen lekuan-edo. Baina zaila da. Ondo ezagutzen dituzueni opariak egitea errazagoa da, ezagutzen ez dituzueni egitea baino.

► **Idaztea gustuko duzula begi-bistakoa da. Idazle izan nahiko zenuke?**

Ba beharbada, bai, baina ez dakit. Andereño izatea ere gustatuko litzaidake. Gustatzen zait ikastolara joatea, eta besteei irakastea polita izango litzateke. Baina, egia esan, ez naiz jarri pentsatzen.

► **Eskutitzak idatzi zalea al zara? Ohiturarik ba al daukazu Gabonetan eskutitzak edo postalak idazteko?**

Gustatzen zait idaztea, eta batzuetan idazten ditut gutunak. Ikastolako lagunei idazten diet gehienbat. Kanean ere ikusten ditut, baina batzuetan gutunak ere idazten dizkiet, niri ere asko gustatzen zaidalako jasotzea. Gogoia baldin badut marrazkiren bat ere bidaltzen diet batzuetan.

1. Saria: Irati Intxausti San Martin (*Itari*)

2. Saria: Bi lanen artean antzeko maila egon da, eta ezin izan dute bat nabarmendu. Beraz, bi bigarren sari banatu dira:

* Unai Astiazaran Makazaga (*Laster*)

* Ana Zubiaurre Iriondo (*Uxue Alberdi*)

Sari berezia: Ainhitze Beristain Ariznabarreta (*Txatxamatxalin*)

GABONAK ARTE, LAGUN!

Bazen behin Olentzero izeneko ikazkina. Neguan baino ez zen jaisten herrira, abenduaren 24an. Inork ez zekien non bizi zen, eta jende askok ikazkin misteriotsua esaten zion. Ikazkina herrira jaitsi zen egunean haurrek opariak jaso zituzten, eta herrian zabaldu zen ikazkinak banatu zituela.

Jakin-mina zuen haur talde batek inguruko mendiak aztertzeari ekin zion.

Tontorra elurtua zuen mendi batera igo ziren, tontorrean kobazulo bat zegoen. Laurek aurrera jarraitu zuten elurrez inguratutako eta kandelaz argitutako ate bat aurkitu zuten arte. Iratik atea ireki zuen, eta bat-batean atetik haize bortitza atera zen, eta jarraian isiltasuna nagusitu zen. Ate bat ireki zuten, eta bertan sorgin bat zegoen. Sorginak esan zien Olentzeroren laguna zela, baina Olentzero ikusteko hiru proba gainditu beharko zituztela. Beraz, lehenengoarekin hasi ziren: haurrentzako opari egokiak aukeratzen ikasi behar zuten. Bakoitzarentzat Euskal Herrian zegoen haur bat aukeratu zuen sorginak eta eurak ikertzen hasi ziren.

Laurek euren lana betetakoan sorginak esan zien oso ongi bete zutela lana, beraz, bigarren probarekin hasteko gertu zeudela.

Bigarren proba: gutunak ulertzen ikastea. Bakoitzari gutun bana eman, eta lanean hasteko eskatu zien.

Geroxego denak sorginarengana itzuli eta hirugarren probari ekin zioten: taldeko lana zen Olentzero aurkitzea.

Mendietan barna abiatu ziren, eta beti elurra egoten zen mendi punta urrun batera heldu ziren. Han txabola baten gizon loñi bat eta emakume bat zeuden, Olentzero eta Mari Domingi ziren. Sorginak jarritako hiru proba gainditu zituztenez, prest zuden laguntzaileak izateko. Lagun handiak egin ziren, eta Olentzerori opariak banatzen lagundu ondoren agur esan zieten.

Agur lagun, hurrengo Gabonak arte!!

OHARRA: Espazio kontuengatik, laburtuta ageri da idazlan originala



• Zorionak, **gure etxeko printzesa**, hilaren 6an urte bat egin duzuelako. Familiaren partez.



• Zorionak, **Ane**, hilaren 5ean 5 urte egin dituzelako. Ondo-ondo pasa, etxeko guztien partez.



• Hiru urte, eta mila muxu eta zorion, etxekoen, eta batez ere, Lukenen partez.



• Zorionak, **Ainhoa**, zure laugarren urtebetetzean, familia guztiaren partez, eta bereziki, Nerearen partez.




• Zorionak, **Iker**, Abenduaren 28an bost kandelak itzali zenituen! Muxuak, etxekoen partez.



• Zorionak, **Elur!!** Atzo urtebete. Muxu handi bat gure partez.



• Zorionak, **Intza eta Iker**, urte bat eta zazpi urte egin dituzuelako. Etxeko guztien partez.



• Zorionak, **guraso maiteak**. 55 urte elkarrekin, zuek bai duzuela meritua!! Besarkada eta muxu haundi bat, seme-alaba eta iloben partez.



• Zorionak, **Felisa eta Flora**, hilaren 6an 92 urte egin dituzuelako. Lagunen partez.



• Iritsi da azkenian zuen bizitzako egunik inportantienetako bat. Topera disfrutau bixarko eguna. Guk ere hala egingo dogu! Zorionak, pareja! Kuadrillakuak.



• Zorionak, **Egoitz!** Atzo 22 urte eginda zaude, eta ez genuke ospatu gabe gelditu nahi. Tragoa, noiz? Zure lehengusuak.

Erretratu bakarreko agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza: 5 euro. Handia: 6 euro. Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu. **BARRE**neko bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

consultig, s.l.

garoa

Komunitateen administraritz

Trenbide kalea, 21 zkia.- behea
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 03 02 75 - Fax.: 943 74 82 42
mjolivares@euskalnet.net

Utzi albo batera komunitatearen kudeaketak dakartzan zeregin guztiak, eta goza ezazu zerbitzu tekniko-juridiko integralaz.

Gure eskaintza:

- Batzorde antolaketak.
- Akten idazketa.
- Bilerak eta komunitateko liburura transkripzioa.
- Lehendakariarentzako aholkularitza.
- Kobrantza kudeaketa, izapidetzeak, diru-laguntza tramitazioak,...

Utzi zure komunitatearen kudeaketa profesionalen eskuetan!!

OKINDEGIA

10 domeka **IBARRENA**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

8	Yudego
9	Zabaleta
Goizez,	Garitaonandia
10	Zabaleta
11	Etxeberria (Errosario)
12	Ibañez
13	Garitaonandia
14	Etxeberria (Santa Ana)
15	Fernandez

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik

www.elgoiBARREN.net



8 barixakua

Kirola

22:00 Pilota

San Anton txapelketako finalerdiak. Ikastolako frontoian. Antolatzaileak: Lagunak Pilota Eskola eta Kirol Patronatua.

Musika

22:30 Napoka Iria

Toletxe tabernan eskainiko dute kontzertua

9 zapatua

Bilera

10:30 Elkarbizitza hobetzeko batzarra

Kudeatuz programaren bidez, gazteen lokalek sortzen dituzten arazoak konpontzeko batzarra. Lanbide Heziketako Institutuan (Arregitorre, 2).

12 martitzena

Tailerra

10:30 Makillaje ikastaroa

Haizeak antolatuta, makillaje ikastaroa izango da Kultur Etxean. Doan. Izena emateko: 630 836 917.

Batzarra

21:30 La Union elkarteko batzar nagusia

Kirol arloaren batzarra izango da, elkartean bertan. Hilaren 14an, ordu berean, izango da bazkideen urteko batzar nagusia.

14 eguena

Bilera

18:30 Mekako Guraso Elkartearen bilera

Elkarteko zuzendaritza aukeratzeko eta etorkizunerako

erronkak aztertzeko bilera egingo du Meka GLBHiko Ikasleen Guraso Elkarteak. Mekako areto nagusian (Arregitorre, 2an).

15 barixakua

Antzerkia

20:00 eta 22:15 'Cocidito madrileño 2'

Glu Glu antzerki taldeak *Cocidito Madrileño* antzezlanaren bigarren zatia aurkeztuko du. Herriko Antzokian.

Kirola

22:00 Pilota

San Anton txapelketako finalerdiak. Ikastolako frontoian. Antolatzaileak: Lagunak Pilota Eskola eta Kirol Patronatua.



Gure gomendioa

'Cocidito Madrileño 2'

Urtarrilak 15, Herriko Antzokian, 20:00etan eta 22:15ean Datorren barixakuan aurkeztuko du Glu-Glu taldeak *Cocidito Madrileño*-ren bigarren zatia. Herriko jaiak antolatzen ari diren herritar batzuen arteko ika-mikak dira lanaren oinarri. Aurreko lanak bezala, Radio Euskadiko *Más que palabras* saioaren izen bereko ataleko pasadi-zoetan oinarritutako lana da. Aizpea Goenagak eta Galder Perezek zuzendu dute lana, eta, besteak beste, Ramon Merlo, Javier Anton eta Loli Astoreka izango dira taula gainean.



«La saga crepusculo: Luna nueva»

8, barixakua: 22:15
9, zapatua: 19:00/22:15
10, domeka: 19:00
11, astelehena: 21:30

Estatu Batuak, 2009. Zuzendaria:
Chris Weitz. Aktoreak: Robert Pa-
tinson, Kristen Stewart. Iraupena:
130 minutu.
Bella Swan uztea erabaki du Edward

Cullenek, banpiroen mundutik alden-
tzeko. Bella triste dago, eta Jacob
Blacken laguntza izango du. Kontu-
ratu gabe, giza-otsoen munduan
murgilduko da.

ARAMBURU



BITXIDENDA

ARANBURU BITXIDENDAKO
GABONETAKO ZOZKETAKO ZENBAKI SARITUAK:

1. SARIA

500 €-ko

erosketa txartela

bitxi-dendan

gastatzeko

Zbkia.: 4.178



2. SARIA

500 €-ko

erosketa txartela

bitxi-dendan

gastatzeko

Zbkia.: 834

Ordezko zbkia.: 2.882

San Frantzisko, 26 Tel./faksa: 943 742 535

Ordezko zbkia.: 370

ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Kreditutzarekin ordaintzeko erraztasunak



Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

Garcia

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilloia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixillon 2-2. pabilloia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjodoso.euskalnet.net

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04

Lanusta

Etxe barruko erreformak
☎ 636 375 323



Lorzaintza

Pagoa loradenda

Nafarroa plaza 1
☎ 943 74 01 89
☎ 688 631 307



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 25 45 22

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 - MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilloia
☎ 943 74 30 94



Sarrailagintza

Giltzak

Arragueta, 3 (Eibar)
☎ 943 701 391
www.giltzak.com



Proiektu eta erreformak

Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgolbar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

Urzelai

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87

